

Bidebieta

Danbor hotsak non, Jon Tamayo han

Jon Tamayo 25 urteko auzotarra dugu. Bidebieta Elkarteko danbor nagusia da eta horrez gain, Mendiola ikastetxeko danborrada antolatzen du.

Aurten bosgarren urtez ariko zara Bidebieta Elkarteko danborradan. Hala ere, askoz lehenago hasi zinen danborra jotzen, ezta?

Bidebieta Ikastetxe Publikora sei urterekin sartu nintzen eta hamalau urterekin ikastetxea utzi nuen arte, urtero-urtero atera nintzen danborradan. Hurrengo urteetan, ordea, ezin izan nuen inongo danborradatan jo, elkarte gehienetan 18 urtetik gorakoek besterik ezin baitute parte hartu. 1999an berriro ere danborra jotzeari ekin nion, Bidebieta Elkartean, hain zuzen.

Beraz, ume mokoa zinela hasi zinen danborradan ateratzen. Zein oroitzen dituzu urte haietaz?

Egia esan, udaletxe aurrean abiatzeko txandaren zain geunden denborak amaiezina zirudien. Urte batzuk pasatu dira, baina hala ere, urtero egoten naiz haur danborradan,

Mendiola ikastetxeko neska-mutilen arduradun gisa.

2000. urtetik danbor nagusia zaitugu Bidebieta Elkartean...

Bai, hala da, eta aitortu behar dut poz handia hartu nuela zuzendatu nindutenean, txikitik izan baita nire nahia danbor nagusi izatea. Elkartean, zorionez, ez da oso zaila danbor nagusi izateko aukeratzea, kide gehienek nahiago izaten dutelako danborra jo eta ondo pasa zuzendari lanak egin baino. Niri, ordea, asko gustatzen zait elkarteko lagunak zuzentzea.

Mendiola ikastetxeko danborrada, Bidebieta Elkartekoa... Urtarrilaren 20a egun luzea izango da zuretzat, ezta?

Ezbairik gabe. Musikaria naiz eta San Sebastian bezperan lanean aritzen naiz jate-txe batean 03.00ak arte. Ondoren, ohean sartu eta

07.30ean jaiki behar izaten dut ikastetxeko neska-mutil gutziakin Alderdi Ederrera joateko. 15.30ak aldera etxera itzuli eta ziztu bizian elkartera abiatzen naiz, 17.30etik aurrera jotzen baitugu auzoan. Eta hau guztia gutxi balitz bezala, gauz berrirori lanera! San Sebastian egun osoan ez dut atsedunik hartzen, baina tira, egun bakarra da urtean...

Mendiola ikastetxean lanak izaten dituzue danborrada osatzeko. Zergatik?

12 urtetik gorakoen artean, gutxi parte hartzen dute danborradan. Beste eraikin batean ari dira ikasten eta ezer gutxi jakin nahi dute "txikiekin". Hortaz, zaila izaten da taldea osatzea. Datoren urtean ere komeriak izango ditugu, izan ere, azken urteotan 4 eta 5 urteko neska-mutilekin osatu dugu taldea eta danborradaren araudi berriak ez ditu 7 urtetik behera-



koak onartzen. Dena dela, aurten jantziak berritu ditugu eta egundoko ilusioarekin gauz de; gero geroakoak.

Zorionak eta ondo pasa
San Sebastian egunean

Casa Urola

JATETXEA Fermin Calbeton 20 • PARTE ZAHARRA
Tel. 943423424 eta 943421175 • Faxa: 943423424

PLATERO
TABERNA

Matia, 33 DONOSTIA Tel: 943 212758 - 943 210929

OLIYOS

BARBERIA * BARBERIA

Eregezainen Kalea 4 • Tel: 943 21 49 89